



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2020.01.21

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Nerea Letamendia Beloso

Begoña Tolosa Mendia

Xabier Balerdi Tolosa

Jose M^a Villanueva Telleria

Patxi Amantegi Zubiria

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Jarduneko Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko urtarrilaren hogeita batean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2020ko urtarrilaren 14ko bilkurako akta onartzea.
2. Onartzea lau administrari plaza hornitzeko hautatze-proben deialdiko oinarriak aldatzea.
3. Onartzea Tolosako Udalaren eta Eleka Ingeniaritza linguistikoa SL-ren arteko hitzarmena azkentzea.
4. 2020/44 Dekretuaren berri ematea: 2019/64 eta 2019/65 faktura zerrendak.
5. Dekretu hauen berri ematea:
2019ko abenduaren 30ekoak (2019/2.152-2019/2.186).
2020 urtarrilaren 2tik 9ra (2020/01-2020/38).

1. 2020KO URTARRILAREN 14KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko urtarrilaren 14an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.



TOLOSAKO
UDALA

2. ONARTZEA LAU ADMINISTRARI PLAZA HORNITZEKO HAUTATZE-PROBEN DEIALDIKO OINARRIAK ALDATZEA.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko urriaren 15ean, Udaleko lau administrari plaza betetzeko deialdia eta oinarriak onartu zituen. Oinarrien 7.16 atalean, epaimahai kalifikatzailearen osaketa azaltzen da, hauex, hain zuzen ere:

“7.16. Epaimahaia ondorengoek osatuko dute, oinarri hauetako 1. eranskinean eskainitako plazak betetzeko aurreikusi den prozeduran:

- *Lehendakaria: Udaleko Administrazio Orokorreko teknikaria edo bere ordezkoa.*
- *Bokalak:*
 - o *HAEEK izendatutako teknikaria edo bere ordezkoa.*
 - o *HAEEK izendatutako teknikaria, euskarako proba egiteko.*
 - o *Udaleko edo beste udal bateko karrerako funtzionarioa edo bere ordezkoa.*
 - o *Tolosako Udaleko Kontuhartzaitzako teknikaria edo bere ordezkoa.*
- *Idazkaria: Udaleko Giza Baliabideetako teknikaria edo bere ordezkoa.”*

Honela, behin eskaerak aurkezteko epea amaitu ostean, eta ikusirik aurkeztutako izangaiak, bi epaimahaikidek abstenitzeko obligazioa izango lukete, Udaleko Administrazio Orokorreko teknikariak eta Udaleko Kontuhartzaitzako teknikariak, hain zuzen ere. Horregatik, epaimahaia osatzeko dauden zailtasunak kontuan hartuta, epaimahaia malgutasun gehiagoz osatzeko proposamena egiten da, beti ere legeak ezartzen dituen inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpideak errespetatuaz.

Hortaz, hauex litzateke osaketa berria:

- *Lehendakaria: Udaleko Idazkaria edo bere ordezkoa.*
- *Bokalak:*
 - o *HAEEK izendatutako teknikaria edo bere ordezkoa.*
 - o *HAEEK izendatutako teknikaria, euskarako proba egiteko.*
 - o *Giza Baliabideetako teknikaria edo beste Administrazio bateko teknikari bat edo bere ordezkoa.*



TOLOSAKO
UDALA

- *Foru Aldundiko edo beste Administrazio bateko Kontuhartzaitzako teknikaria edo bere ordezkoa.*
- Idazkaria: Udaleko Giza Baliabideetako administraria edo bere ordezkoa.”*

Horregatik guztiagatik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea lau administrari plaza betetzeko deialdiaren oinarriak aldatzea, bere 7.16 atalean, eta ondorengo epaimahaiaren osaketa berri hau:

“- Lehendakaria: Udaleko Idazkaria edo bere ordezkoa.

- Bokalak:

- *HAEK izendatutako teknikaria edo bere ordezkoa.*
- *HAEK izendatutako teknikaria, euskarako proba egiteko.*
- *Giza Baliabideetako teknikaria edo beste Administrazio bateko teknikari bat edo bere ordezkoa.*
- *Foru Aldundiko edo beste Administrazio bateko Kontuhartzaitzako teknikaria edo bere ordezkoa.*

- Idazkaria: Udaleko Giza Baliabideetako administraria edo bere ordezkoa.”

BIGARRENA.- Ebazpen hau argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta iragarki taulan.

HIRUGARRENA.- Honen berri ematea Giza Baliabideetako Sailari.



TOLOSAKO
UDALA

3. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA ELEKA INGENIARITZA LINGUISTIKOA SL-REN ARTEKO HITZARMENA AZKENTZEA.

Aurrekariak

2010eko otsailaren 10ean, hitzarmena sinatu zuen Tolosako Udalak Eleka Ingeniaritza Linguistikoa SL-rekin, Euskara Departamentuan lan egiten zuten langileek itzulpenetan eta testu zuzenketan *Idazlagun* Web Zerbitzua erabili ahal izateko.

Gaur egun, ordea, Eusko Jaurlaritzako web orrialdean itzultzaile neuronala erabilgarri dago eta honako deskribapen hau du:

ITZULTZAILE NEURONALA

Itzultzaile neuronala Eusko Jaurlaritzak Inteligentzia Artifizialek abiatuta herritarren erabilerara bideratu duen lehen proiektu praktikoa da. Zerbitzu horrek "*kalitate handiko*" itzulpenak egiteko aukera ematen du, bai gaztelaniatik euskarara, bai euskaratik gaztelaniara, eta herritar guztien eskura dago www.euskadi.eus/itzuli webgunean.

Itzuli itzultzaile neuronala hainbat urtetako lanaren emaitza izan da, eta IVAPek, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak, 20 urtez bildutako itzulpen-memoriak erabiliz inplementatu da. Itzulpengintzaren arloan pilatutako esperientzia izugarriari esker, bereziki euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara itzulpengintzan, terminologia- eta hizkuntza-oinarria bakarrik alderatu daiteke "*munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzekin*". Era berean, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) 20 urte daramatza itzulpen-memoriak sortzen, eta, horri esker, 10 milioi segmentu baino gehiagoko datu-baseak ditu, itzulita, berrikusita eta eguneratuta. Ezagutza horri esker, hain zuzen, *Itzuli*-ren kalitate-maila handia lortu da.

Bestalde, hainbat sailetan probak egin dira eta harrera eta emaitza onak izan ditu.

Araubide juridikoa

40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa.

49. artikulua. Hitzarmenen edukia.

h) Hitzarmenaren indarraldia, honako erregela hauek kontuan hartuta:

- 1.a Hitzarmenek iraunaldi zehaztua izan beharko dute, gehienez ere lau urtekoa, non eta epe luzeagoa aurreikusten ez den arau bidez.
- 2.a Aurreko zenbakian aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahalko dute hitzarmena luzatzea, gehienez beste lau urterako, edo hitzarmena azkentzea.

Beraz, eta zortzigarren Xedapen Gehigarrian xedaturikoari jarraituz, lankidetzeta-hitzarmen honen indarraldia 2019ko urriaren 2an amaitu zen.



TOLOSAKO
UDALA

Ondorioak

Probak eta emaitzak ikusita, gaur egun *Idazlagun* web zerbitzuak betetzen zituen funtzioak itzultzaile neuronalak egiten ditu.

Horregatik guztiagatik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Udalak Eleka Ingeniaritza Linguistikoa SL-rekin duen hitzarmena azkentzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesatuei, Kontuhartzaitzari eta Euskara Sailari.

4. 2020/44 DEKRETUAREN BERRI EMATEA: 2019/64 ETA 2019/65 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2020/44 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/0044

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatzetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2019ko honako faktura-zerrenda hauek:

64. zenbakia duena, 3.895,66 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

65. zenbakia duena, 370.583,12 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak ondorengo hau

EBAZTEN DU:

LENEHIK.- Onartzea ondorengo faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

64. zenbakia duena, 3.895,66 eurokoa.

65. zenbakia duena, 370.583,12 eurokoa.

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko urtarrilaren 10ean

Zinegotzi delegatua

Begoña Tolosa Mendia

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu da.

5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2019KO ABENDUAREN 30EKOAK (2019/2.152-2019/2.186).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2019ko abenduaren 30ean (DK 2019/2152-2019/2186) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2152	2019	30/12/2019	KONTUHARTZAILITZA	FUNDACION MUÑOAREN EKARPENA 2019
2153	2019	30/12/2019	IDAZKARITZA	URIA MENENDEZ KONTRATATZEA.
2154	2019	30/12/2019	KONTUHARTZAILITZA	IBILGAILUEN GAINEKO 4 URTETAKO ZERGAK LIKIDAZIOAK ONARTZEA
2155	2019	30/12/2019	KIROLA	KIROL JARDUERA BEREZIETAKO 2019KO DIRULAGUNTZAREN LIKIDAZIOA
2156	2019	30/12/2019	KIROLA	KIROL EGITURENTZAKO 2019KO DIRULAGUNTZEN LIKIDAZIOA
2157	2019	30/12/2019	DIRU-BILKETA	1964 PREMIAMENDU ESPEDIENTEA KONPENSATZIOA ETA ITZULKETA
2158	2019	30/12/2019	PERTSONALA	ABENDUKO NOMINA
2159	2019	30/12/2019	IDAZKARITZA	ONDARE REKLAMAZIOA. J.D.R.
2160	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 19 JABEKIDEEN EXEKUZIO AGINDUA BIDALTZEA
2161	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	RONDILLA 23-2. A BAIMEN LUZAPENA EMATEA
2162	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	AUZO TXIKIA 1 JABEKIDEEI EXEKUZIO AGINDUA BIDALTZEA
2163	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	MONTESKU 2 ETXEBIZITZA SEGREGATZEA
2164	2019	30/12/2019	DIRUBILKETA	EXEKUTIBAKO BAJAK
2165	2019	30/12/2019	AZOKAK	OSTALARITZA ORDENANZAREN ALDAKETA
2166	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	IURRE AUZOA 1EAN TABERNAN ERREKERIMENDUA
2167	2019	30/12/2019	FESTAK	LAGUN ARTEA ELKARTEARI 2019KO DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA
2168	2019	30/12/2019	FESTAK	LARRAMENDI BIZIRIK AUZOKIDEEN ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ZUZENA EMATEA
2169	2019	30/12/2019	OBRAK	BEDAIOKO AUZOKO OBREN 3. ZIURTAGIRIA ONARTZEA
2170	2019	30/12/2019	DIRUBILKETA	10713 PREMIAMENDUAREN ESPEDIENTEAREN EBAZPENA
2171	2019	30/12/2019	DIRUBILKETA	19159 PREMIAMENDUAREN ESPEDIENTEAREN EBAZPENA
2172	2019	30/12/2019	DIRUBILKETA	27345 PREMIAMENDUAREN ESPEDIENTEA EBAZPENA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
2173	2019	30/12/2019	DIRUBILKETA	26286 PREMENDU ESPEDIENTEA EBAZPENA
2174	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	BELATE 1 LOKALEKO FATXADAN ERROTULOAK LEGEZTATZEA
2175	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 15 OBRAREN TITULARTASUNA ALDATZEA
2176	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	MONTESKU AUZOA 2 LEHEN ERABILERA EMATEA
2177	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	EJEKUZIO AGINDUA SAN FRANTZISKO 8
2178	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	LEHEN ERABILERA KONDEKO ALDAPA 12
2179	2019	30/12/2019	KONTUHARTZAILZEA	OHZKO KITAPENAK. IGORPENA 2019/1 .ERANSKINA 007 ONARTZEA
2180	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	6.1 SAN COSME ETA SAN DAMIAN BIPARTZELAZIOKO PROIEKTUARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA
2182	2019	30/12/2019	IDAZKARITZA	EUSKAL HERRIA PLAZAKO 301 APARTAMANTUAREN KONTRATUAREN AMAIERANGATIK FIDANTZA ITZULTZEA.
2183	2019	30/12/2019	HIRIGINTZA	IZASKUNGO ANDRE MARI PLAZAN 11 OBRA EGITEA
2184	2019	30/12/2019	OBRAK	TRIANGULO PLAZAN KOKATZEN DEN GARAJERAKO ESKAILERA OBRAREN ABALA ITZULTZEA
2185	2019	30/12/2019	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO GARAJEEN KONTRATO AMAIERANGATIK FIDANTZA BUELATZEA
2186	2019	30/12/2019	KONTUHARTZAILZEA	OKERREKO SARRERAK ITZULTZEA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

2020 URTARRILAREN 2TIK 9RA (2020/01-2020/38).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko urtarrilaren 2tik 9ra bitartean (DK 2020/0001-2020/0038) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:



ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
1	2020	02/01/2020	IDAZKARITZA	ONDARE REKLAMAZIOA F.C.M.
2	2020	02/01/2020	IDAZKARITZA	ONDARE REKLAMAZIOA C.R.G.
3	2020	02/01/2020	HIRIGINTZA	ZEZEN PLAZA BIRGAITZEKO 3.FASEKO OBRAREN LUZAPENA ONARTZEA
4	2020	03/01/2020	HIRIGINTZA	IURRE AUZOA 1 BEHEAN ERREKERIMENDUA
5	2020	03/01/2020	HIRIGINTZA	FRUTA ERAKUKSTOKIA JARTZEKO BAIMENA LASKOAIN KALEA 11 BEHEAN
6	2020	07/01/2020	PERTSONALA	2019KO ABENDUKO GIZARTE SEGURANTZAREN KOSTUA ONARTZEA
7	2020	07/01/2020	OBRAK	ZEZEN PLAZA BIRGAITZEKO 3.FASEKO OBREN 3.ZIURTAGIRIA ONARTZEA.
8	2020	07/01/2020	OBRAK	ZEZEN PLAZA BIRGAITZEKO 3.FASEKO OBREN 4.ZIURTAGIRIA ONARTZEA.
9	2020	07/01/2020	IDAZKARITZA	ONDARE ERREKLAMAZIOA EZ ONARTZEA. I.G.G.
10	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B63 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA BERTAN BEHERA UZTEA
11	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B63 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA ONARTZEA
12	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B12 PARTZELAREN ESLEIPENA BERTAN BEHERA UZTEA
13	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	IURRAMENDI BARATZA PARKEKO B12 PARTZELAREN ERABILERA BAIMENA EMATEA
14	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	UZTURRE KALEKO ORUBEEN UZTASUN EGOERA KONPONTZEKO EGIKARITZE AGINDUA BIALTZEA JABEEI
15	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	BIZKAI KALEA 12KO ERAIKINEKO JABEKIDEEI, TELEFONIKA, EXEKUZIO AGINDUA BIALTZEA
16	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	SOLDADU KALEA 4 BEHEKO "HONG-KONG" JATETXE JARDUERARAKO ZUZENKETAK EGITEKO ERREKERIMENDUA
17	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	BELATE 12KO JABEKIDEEI EXEKUZIO AGINDUA BIALTZEA
18	2020	07/01/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 11-1 EZK. ETXEARI OBRA AMAIERA ETA LEHEN ERABILERAKO BAIMENA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
				EMATEA
19	2020	08/01/2020	IDAZKARITZA	639/2019 PROZEDURA LABURTUAN AGERTZEA
20	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 7-6 ESK. ETXEKO EXEKUDIO PROIEKTUA ONARTZEA
21	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	CAMBIO DE TITULARIDAD DE LA LICENCIA DADA MEDIANTE DECRETO 1953 DE 21 DE NOVIEMBRE DE 2019
22	2020	08/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	M ^a D.B.RI BALIOANITZEKO ETXEBIZITZAKO KONTRATUA LUZATZEA
23	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 11-1D ETXEBIZITZAKO OBRA AMAIERAKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
24	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	CAMBIO DE TITULARIDAD DE LA LICENCIA DE SEGREGACION DADA A SAN FRANTZISKO 7-6DERECHA
25	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	TOLOSA LANTZENI BAIMENA EMATEA BEOTIBAR PILOTALEKUKO ITXIARAZITAKO HARMAILA ERABILTZEKO
26	2020	08/01/2020	KULTURA	I.E.A. MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAREN BAJA ONARTZEA ETA HIRUGARREN KUOTA EZ KOBRATZEA
27	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 16KO ERAIKINAREN ERREFORMA LANEI DAGOKIENEZ IPINITAKO FIDANTZAK ITZULTZEA ETA EIT TXOSTENAREN ONDORIOZ OBRA AMAITUTAKOAN AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
28	2020	08/01/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAN ETA NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIAN AKATSA ZUZENTZEA.
29	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	SOLDADU KALEA 8KO LEHEN ERABILERA LIZENTZIA ESKURATZEKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIA AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA ETA HONDAKINAK KUDEATZEKO FIDANTZA ITZULTZEA



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
30	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	BERDURA PLAZA 4KO ERAIKINA ERABERRITZEKO OBREI DAGOKIENEZ, 4B ETXEBIZITZAN BEHEKO SOLUZIOREN BAT HARTZEKO AGINDUA
31	2020	08/01/2020	HIRIGINTZA	DENEGAR SOLICITUD BAJA TERRAZA EN ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK 3 BAJO
32	2020	09/01/2020	PERTSONALA	SERBITZU MEDIKUA 2020
33	2020	09/01/2020	PERTSONALA	LIBURUZAIN OINARRIAK
34	2020	09/01/2020	PERTSONALA	ERRENTA TEKNIKARI ORDEZKAPENA
35	2020	09/01/2020	FESTAK	TOLOSAKO IÑAUTERIEN IKUS-ENTZUNEZKO PLATAFORMA KUDEATU ETA ELIKATZEKO ZERBITZUA AKHONMEDIA ENPRESARI ESLEITZEA
36	2020	09/01/2020	PERTSONALA	L.B. (IKASTAROA III MODULO)
37	2020	09/01/2020	PERTSONALA	B.G. IKASTAROA
38	2020	09/01/2020	HIRIGINTZA	NAFARROA ETORBIDEA 8KO ERAIKINEAN KONPONKETAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERA

Denak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

IDAZKARIA